

Errenteriako emakumeak historia eginez

Axun Erzibengoa Aizpiolea

Ustekabeen iritsi da urteurrena, ustekabeen, emakumeek urtez urte egin duten lana isilean eta askoren begietara heldu gabe pasa delako. Baina zalapartarik gabe etorri izanak ez dio garrantzia kentzen: duela 25 urte Errenteriako Udalak Emakumearen Sustapenerako Programa jarri zuen martxan, *Emakumeak: topaketak eta gizartean parte hartzea helburu* izenez ezaguna da gaur egun. Programa horrek ibilbide luzea egin du, eta bide horretan aldaketa ugari ezagutu ditu, baita bilakaera nabarmena ere datuek erakusten duten moduan. Herriko bi auzotan abiatu zen, eta poliki poliki herri osora zabaldu da, 11 talde bilduz. Lehendabiziko urte hartan 76 emakumek hartu zuten parte, eta egun, 1.000 baino gehiago dira talde horietan daudenak.

Baina garrantzitsuen zera da: hasieran Udalak antolatu eta kudeatzen zuen guztia eta emakumeak parte-hartzaile soilak ziren. Denborarekin, ordea, emakumeen protagonismoa handitzen joan da, batzordeak osatuz, auzoarteko erabakiguneak sortuz, Udalaren dirulaguntza beraiek kudeatuz... eta gaur egun, emakumeek erabakitzen dute programaren nondik norakoa, zer eta nola egiten den, edo zer aldatu edo kendu behar den. Sorrerako ideia eta helburua

etxeoandreei etxetik ateratzen laguntzea zen, beste emakume batzurekin harremanetan jartzea, eta bide batez jarduera ludiko eta kulturalak eskaintzea haien bizimodua nahiko mugatua zelako. Denborak eta datuek erakutsi dute helburua bete, bete dela, eta gainera emakume horien gaitasuna izugarria dela. Beraien etxeak ederki gobernatzeaz gain etxetik kanpo ere ardurak hartu eta antolaketa gaitasuna dutela. Askok uste dute gimnasia, yoga, eskulanak, dantza edota joste-lanak egiteko topalekuak direla, baina atzean hori baino askoz ere gehiago dago, emakume askoren konpromisoa, hain zuzen.

Baina zer da zehazki Programa hori, eta zein izan da bilakaera? Historia pixkat egin dezagun.

1983an hasi ziren Programa gorpuzten. Batetik, kezka sortu zen. Emakume multzo handia zegoen bereizgarri berberekin: etxeoandreak, gazteak, eta seme-alabak jada kozkortuta zituztenez ordura arte ez bezala ordu libreak zituztenak. Denbora libre hori betetzea izan zen helburuetako bat, horrela, bakardade eta depresio egoerak ekiditeko asmoz. Horretaz gain, egoera beretsuan zeuden emakumeei elkar ezagutzeko aukera ematea, eta harremanak sortzea. Baina helburu-



Agustinak auzoan 84/85 ikasturtean talde dinamikan parte hartu zuten emakumeak.

rik garrantzitsuena beste hauxe zen: "Emakumeei leiho bat irekitzea munduan zer gauza dauden erakusteko. Beraien etxeaz gain eta bizitzaz gain, beste zer eskaintza dauden ikusi eta beraien interesekoa dena aukeratu eta gauzatu ahal izateko aukera ematea". Arantza Zugasti gizarte-laguntzailea izan zen Programaren lehenengo koordinatzailea, eta oso gogoan du helburu hori. Zugastik urteak zeramatzan emakumeen arloan lanean, aipatutako helburu horiek guztiak lantzen aritua zen, Kutxak Igantzi kalean zuen zentroan. Programa martxan jarri zen arte, hara, herri guztitik joaten ziren zenbait emakume jarduerak egitera. Jarduera eskaintza hori herri osora zabaltzea zen Programaren ideia, auzoz auzo lan egitea. Hori izan zen Udaleko arduradunekin eginiko bileraren batean sortu zen egitasmoa.

Garai hartan Udaleko Gizarte Ongizate saila txikia zen. Pilar Briones gizarte-laguntzailea (gaur egun, Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria) zen arduraduna, eta ordezkari politikoa, berriz, Avelina Jauregi. Zugastik eta Udaleko ordezkari horiek elkarrekin eginiko bileraren batean gaia aztertu zuten, emakume multzo handi horren inguruko kezka azaleratu zuten, eta arazoari aurre hartu nahirik Emakumearen Sustapenerako Programa martxan jartzea erabaki zuten, prebentzioa eta ongizatea, biak programa horretan uztartu asmoz. "Oso ahaztuta zegoen multzoa zen etxekoandrea, eta emakumeena orohar. Beraien kargu zeuden familia, haurrak eta aiton-amonak. Asko ematen zuten eta oso gutxi jaso, horregatik kolektibo hori zaindu beharra zegoela ikusten genuen", dio Zugastik. "Gure aldetik gauzak egiteko gogoia zegoen, eta Udalak era bazuen arazoaren kontzientzia, aldaketa garaiak izan ziren eta horrelako arazoak zaintzen hasi beharra zegoela ikusi zuen Udalak, hori ere garrantzitsua izan zen Programa martxan jartzeko". Horrela, aurre-

kontua zehaztu, 500.000 pezeta (3.005 €), eta lanean hasi ziren, *Emakumeak: topaketak eta herrian parte hartzea helburu*, jarri zioten izena.

Bitik hamaikara

Lehenengo ikasturtean bi auzorekin hasi zen lanean Zugasti: Agustinak eta Kaputxinoak. Zergatik? "Nik uste dut erdialdetik urrunen zeuden auzoak zirelako, eta zentrorra joateko zailtasun handienak haiek zituztelako". Auzoetan deialdiak egin eta lehen bilerak hasi ziren. Harrera ona izan zuen ekimenak, lehen urtean jada 76 emakumek hartu zuten parte. Ekintzen antolaketan Udalak egiten zuen koordinatzailearen eskutik, baina hasiera hasieratik emakumeei galdetu zitzaiezen zein ziren beren gustuko gaiak, zer ikasi nahi zuten eta horren arabera antolatu ziren ekintzak. Hori bai, emakumeei entretenimendua eta ekintza ludikoak eskaintzeaz gain, norberak bere burua hobeto ezagutzea, harremanak lantzea eta bakoitzari buruz gogoeta egitea ere bazen helburua, eta horregatik hasierako urteetan beti horretara bideratutako jardueraren bat egiten zen. Adibide gisa 84/85 ikasturtean Agustinak auzoan ondorengo gaiak landu zituzten: psikologia ebolutiboa, talde dinamika eta jantzigintza.

Hortik aurrera Programa zabaltzen joan zen. Hala, 85/86 ikasturtean aurreko bi auzoei Beraun erantsi zitzaiezen, hurrengoan Olibeteko taldea izango zena hasi zen, eta ondoren urtez urte banaka banaka hasi ziren Gabierrota, Alaberga, Iztieta, Ondartxo, Erdialdea, Galtzaraborda eta Pontika. Azken talde hori 1996an hasi zen Programan parte hartzen. Baina lehendabiziko taldeak hasi zirenetik azkeneko hori sartu arte aldaketa ugari izan ziren, egituraren, antolaketaren, funtzionamenduan, eta baita arduradunetan ere. Auzoen murgiltze

84/85
ikasturtean
Kaputxinoetan yogako
taldea osatzen zutenak.





94/95
ikasturtean taldeek
elkarrekin egin zuten
irteera bat.

prozesua bi modutara egin zen. Batetik, Udalaren ekime-
nez, urtez urte talde berriei Programan sartzeko eskaini-
tza egin zitzaion. Beste kasu batzuetan Udalari aurre
hartu eta auzoetatik bertatik iritsi zen eskaera. Izan ere,
auzo batzuetan beraien kabuz antolatzen zituzten
ekintzak, eta Udalak dirulaguntza ematen zuela jakinik
bertara jo zuten Programan sartzeko eskatuz.

Auzo ekintzetatik talde lanera

Talde bakoitzean parte hartzen zuten pertsonak
euren artean ezagutzea eta beraien arteko harremanak
lantzea izan zen lehen urteetako lana. Ondoren,
auzo ezberdinetako taldeak elkar ezagutzeko lehen
ekintza bateratuak hasi ziren agertzen 88/89 ikastur-
tean: zine-foruma, Emakumearen Eguneko zine ema-
naldia eta merienda, egun bateko irteera, bidaiia luzea,
eta eskulanean erakusketa. Ekintza xumeak izan ziren,
baina emakumeen artean harrera ona izan zuten.
Momentuz, beraien aldetik jarduera horretara joatea
beste inplikaziorik ez zuten eskatzen. Hala ere, auzotik
atera behar izatea kostatzen zitzaien. Orduan jada
158 emakume ziren programan parte hartzen zutenak,
lau auzotan banatuta: Beraun, Kaputxinoak, Agustinak
eta Olibeteko taldea. Aurrekontua, berriz, 1.200.000
pezetakoa (7.212,15 €) zen.

Hurrengo ikasturteetan jarduera bateratu horie-
tan gehiago sakondu zen. Batetik, ugaritu egin ziren:
1989an *Emakumeak* aldizkaria kaleratzen hasi ziren,
eta irteerak, bidaiak, eztabaidak, karta txapelketak eta
martxoaren 8ko ikuskizuna egiten zituzten. Bestetik,
emakumeek protagonismo handiagoa hartu zuten
ekintza horiek antolatzeko garaian. Auzotik atera,
talde desberdinetako ordezkariak koordinatzaileare-
kin bildu eta ekintzak elkarrekin prestatzen hasi ziren.
Horretarako taldeetan ordezkariak aukeratzen zituz-
ten. Eta horrela 1993an esate baterako, martxoaren 8ko

ospakizuna antolatzea beraien esku geratu zen lehen
aldiz. Antolaketak erabaki konplexuak hartzea zeka-
rren batzuetan, adibidez, martxoaren 8a festa eguna
edo aldarrikapen eguna izango zen erabakitzea.

Auzoarteko ordezkarien bilerak ekintza horien
prestaketetan dute jatorria. 93/94 ikasturtean bilera
horiek egituratuta geratu ziren, hilean behin egiten
zituzten, talde bakoitzeko bina ordezkari joaten ziren
bileretara eta emakumeek modu positiboan balorat-
zen zituzten, haien beharra ikusten zuten kezka elka-
rrekin konpartitzeko. Garai horretan batzordeak ere
sortu ziren, ekintza bateratu bakoitza antolatzeko bat-
zorde bana auzoarteko bileren egitura berarekin. Jada
finkatuta geratu zen neurri handi batean gaur egun-
go lan sistema. Talde barneko antolaketan gertatuko
dira aldatarik handienak handik aurrera. Izan ere,
auzotik kanpo lan horiek guztiak egiten zituzten bitar-
tean bakoitzak bere auzoan ekintzak egiten jarraitzen
zuen, baina haien antolaketa eta kudeaketa Udalaren
esku zegoen oraindik.

Kontestu horretan iritsi zen egitasmoaren 10.
urteurrena. Ordura arteko ibilbidea begiratu gero
bilakaera izugarria ikus zitekeen: Bi talderekin hasi eta
hamarreraino iritsi, 380 partehartzaile. Baina batez ere
emakumeek antolaketa mailan eginiko aurrerapau-
soak. Hamar urte lehenago etxetik ateratzen ez ziren
emakume haiek berak, bakoitzak bere auzoko ekint-
zetan parte hartzeaz gain, taldeak osatu, ordezkariak
aukeratu, beste auzokideekin elkartu eta hainbat jar-
duera antolatzen zituzten elkarrekin.

Autogestioaren mamua

Programaren helburuak gogoratzeko garai ego-
kia zen: Emakumeentzako elkargune bat sortzea, eta
bide batez zenbait kultur ekintza eta ekintza ludiko

2004ko
Emakumeen
Eguneko aktuzioetako
bat Kiroldegian.



egitea, beti ere, beraien antolakuntza bultzatuz, pertsona gisa hazi, eta bakarrik pausoak eman zituzten prestatuz. Zalantzarik gabe asko aurreratu zen zentzu guztietan, eta aurrerapauso bat egiteko garaia zela planteatu zen Udalaren aldetik. Garai hartako koordinatzaileek 92/93 ikasturterako prestatu zuten plangintzak argi eta garbi erakusten zuen asmoa: taldeen autogestioa. Dirulaguntza Udalak emanik ere, ekintzen antolaketa eta kudeaketa emakumeek egin zezaten bultzatu nahi zen. Ordura arte Udalak antolatzen zituen auzoetako ekintzak, irakasleak aurkitu, ordaindu..., baina hasieratik egin zen ahalegina emakumeen arten kontzientzia sortzeko, inplikazioa sustatzeko eta euren kabuz antolatu zitezten bidea egiteko.

Zalaparta izugarria sortu zen. Amaia Arotzena udal teknikaria 92/93 ikasturte hartan hasi zen Emakumearen Programaz arduratzen. Berak ardura hartu zuenean ikasturte horretarako plangintza jada egin zegoen eta aurkitu zuen giroa nahasia izan zen. Oso gogoan du lehenengo bileretan emakumeek erakutsi zuten hasierare. Izan ere, ordura arte Udalak antolatzen zituen ekintzen artean bat ludikoa edo entretenimenduzkoa zela esan daiteke, eta bestea, berriz, emakumeen eza-gupena handitzeko, konfiantza hartzeko eta pertsona gisa garatzeko antolatua. Aipatutako ikasturterako proposamena zen ekintza guztiak taldea sendotzeko ekintzak izatea, entretenimenduzkoak kentzea, burubelari autogestiorako prestaketan murgiltzeko.

Emakumeek planto egin zuten. Ez zeuden egitasmo hori onartzeko prest. Izan ere, eta urteek ematen duten perspektibatik begiratuta proposamen hark bi akats nagusi zituela uste du Arotzenak: "Emakumeak autogestioa egiteko prest zeudela pentsatu edo interpretatu zen, baina haien nahiari ez zitzaion neurria egoki hartu. Beste akatsa, eta garrantzitsuena, metodologikoa izan zen. Taldeak sendotzeko asmoz ordura arte egiten ziren ekintza ludikoagoak kendu nahi izan ziren, haien garrantziaz konturatu gabe. Ezin

baita ukatu horrelako ekintzak izaten direla pertsonak kezka ahaztu eta bere buruari begiratzeko hartzen duen unea, harremanak sortu, landu, eta zabaltzeko izaten den unea, baita ere sentimenduak modu irekian azaltzeko bilatzen den unea". Horrela, emakumeek bat egin zuten, eta beraien nahiak adierazteko gai izan ziren. Bilera ugari egin zituzten udaleko ordezkariekin batera, eta gatazkari irtenbide positiboa ematea lortu zuten. Talde lana egiten jarraitu zen, baina baita ekintza ludikoagoak ere. "Ikasturte horretan sortu zen autogestioaren mamua, baina agian momentu eta modu desegokian egin zelako planteamendua".

Garai hartan Programan parte hartzen zuten taldeetatik Iztietakoa eta Ondartxokoa bakarrik ziren euren dirua kudeatzen zutenak hasieratik horrela hasi



Auzo ezberdinetako ordezkariak karta txapelketan parte hartzen.

zirelako. Beraun, Agustinak, Kaputxinoak, Erdialdea, Olibet, Gabierrota eta Alaberga ez zeuden pauso hori emateko prest. Gertatutakoak gertatu, urak bere onera itzuliak ziren 10. urteurrenerako. Hortik aurrera, poliki poliki joan ziren taldeak autogestiorako pausoa ematen. 96/97 ikasturtean Erdialdekoak hasi ziren euren dirulaguntza kudeatzen, eta hurrengo ikasturtean Alabergakoak. Tartean bi talde berri sartu ziren, Galtzarabordakoa 93/94an eta Pontikakoa 96/97an, eta hasieratik kudeatu izan dute beraien dirulaguntza.

Pontikakoarekin amaitu zen sarrera zikloa, guztira 11 talde eta 700 emakume parte hartzaile izanik, eta 5 milioi pezeta (30.050 €) baino gehiagoko aurrekontuarekin. 11 taldeetatik seik antolatzen zituzten beraien ekintzak Udalak emandako dirulaguntzarekin, eta beste bostek oraindik Udalaren antolaketari lotuta jarraitzen zuten. Azkenean, 02/03an hasi ziren autogestioa lantzen, eta 04/05 ikasturtean eman zuten behin betiko pausoa. Eta urte batzuk pasa ondoren guztiak onartzen dute ez dela hain zaila izan. Lan handiagoa dela diote, noski, baina alde onak ere badituela, jasotzen duten dirua beraiek nahi bezala kudeatzen dutelako, nahi adina ekintza antolatuz, eta beraiek aukeratzen dituzten ekintzak eginez.

Taldeko terapiatik sabel dantzaraino

Hainbeste urteren buruan aldaketak mota askotakoak izan dira, jarduerak ere aldatu dira. Horrelakoetan gertatzen den bezala auzo bakoitzaren bilakaera desberdina izan da, auzoak desberdinak baitira eta baita ere beraien gustuko eta intereseko jarduerak. 84/85eko ekintzak begiratu gero, talde dinamika, jantzigintza, haur psikologia edo drogomenpekotasunari buruzko hitzaldiak eta yoga aurkituko ditugu. Hurrengo urteetan, eskulanak, sukaldaritza, sexualitatea, sorospena, talde dinamika, elikadura, masajeak eta mota horietako aktibitateak. Eskulanen barruan zerrenda amaigabekoa da: makramea, kuadro tridimentsionalak, buztina, margoa, errusiar portzelana, saskigintza, larrua, brikolaia, ehungintza. Joste-lanetan ere denetarik egin dute: punta, gurutze-puntua, kakorratz lanak, eho-ziri lanak, bainikak, brodatua...

Horietako batzuk gaur egun ere egiten dituzte zenbait auzotan, baina aldaketa nagusienak bi izan dira: batetik, hitzaldiak, talde dinamika, ikasgela kulturalak gutxitu egin direla ia talde guztietan, eta bestetik, gorputzari eta norberaren ongizateari loturiko jarduerak azaldu direla. Talde dinamika eta ikasgela kulturalak emakume askoren burukomina ziren: psikologoak izaten ziren arduradunak, eta bakoitzari bere barrura begiratzeko eskatzen zioten eta pentsatzen zituen zenbait gauza esateko berari buruz, besteei buruz.... Oso ariketa zaila zen askorentzat, batzuentzat gustukoa eta lagungarria suertatu zena, eta beste

askorentzat, berriz behartuta egiten zutena. Marilu Albizu egungo koordinatzaileak horrela dio jardueri buruz: "Ni hasi nintzenetik ekintza motak asko aldatu dira. Lehen eskulan asko egiten zituzten, baina gero eta gehiago gorputza sartzen dute eta pertsonalki ondo sentitzea: yoga, thai-chi, chi-kung, erlajazioa, masajea, gimnasia, aerobik, dantza... Beren gorputzean eta sentimenduetan zentratuak daude, baina azken urteotan jakintza gaietan ere pauso batzuk eman dituzte, artearen historia, generoa lantzeko zenbait hitzaldi, alfabetizazioa, intereseko gaiak aukeratu eta hitzaldiak antolatzen dituzte eta arrakasta handia izaten dute...". Albizuk aipatzen dituen jarduera horiek ia talde guztietan aurki ditzakegu, baina bereizgarriak bilatzen ere badakite. Koroa eta astronomia esate baterako Galtzarabordan bakarrik ematen dute, euskal dantzak Erdialdean, pilates Gabierrotan, eta artearen historia eta antzerkia Olibeten. Zentro horretan bertan aipagarria da azken urteetako berrikuntza, eta oso arrakastatsua gainera, sabel dantza, jende gazte eta ez hain gaztea erakarri duen ekintza.

Taldeetan parte hartzeko ez da apartekorik behar. 25 urtetik 65 urte bitarteko emakumeei bideratuta dago. Ikasturte hasieran, irailean, matrikulazioa egiten du talde bakoitzak bere auzoan, 25-50 € bitarteko matrikula gutxi gora behera, eta horrekin ekintza batean parte hartzeko eskubidea du izen eman duenak. Ekintza gehiagotan parte hartu nahi izanez gero pixkat gehiago ordaindu behar izaten da. Parte-hartzaile kopuruari begiratuta, 1.000 baino gehiago, ekintza arrakastatsuk direla ez dago zalantzarik. Baina gaur egun taldeetako arduradun diren emakumeek inplikazioa botatzen dute faltan. Jende asko dago, baina ardurak hartzeko, eta batez ere lehengoei erreleboa egiteko jendea aurkitzea ez da batere erraza izaten. Errelebo hori lortzea litzateke beraien nahia.

Arduradun aldaketak

Programaren egituraketan eta jardueretan izandako aldaketak dira nabarmenenak, baina ez bakarrik. Gizarte Zerbitzuen departamenduan ere aldaketa ugari izan dira, koordinatzaileak, udal teknikariak eta ordezkari politikoak aldatu egin dira hainbeste urtetan. Pilar Briones, Avelina Jauregi eta Arantza Zugastirekin hasi zen proiektu hura gaur egun beste pertsona batzuren esku dago. Amaia Arotzena udal teknikaria arduratzen da Programaz 1992az geroztik, Silvia Astorga da ordezkari politikoa 2006tik, eta koordinazioa Lahar Elkargoak egiten du 2001az geroztik Marilu Albizuren eskutik.

Koordinazio lana hartu zuenetik urte batzuk pasa diren arren Albizuk argi du lana oso gustukoa duela: "Programa gisa nik uste Gipuzkoan erreferentziala dela, elkarrekin eta hainbeste jendekin lanean. Eta gainera oso atsegina da, taldeen prozesuak ikusten

dituzu, gatazkak, erabakiak, guztia bitzen duzu, eta gainera, kalitate handiko emakumeak aurkitu ditut. Jasotzen dudana oso oso ona da". Koordinatzailea da, baina egin beharrekoa emakumeek erabakitzen dutela argi du Albizuk: "Oso prozesu aberatsa da, 11 talde dira, oso desberdinak. Batzuetan, batzurentzat gauzak oso argi daude baina besteentzat ez, eta guztia argitu bitarteko prozesua nola gertatzen den ikustea oso interesgarria da. Eta nire lana entzutea da, errespetuz, beraien ideiak eta iritziak entzun, eta horiek gauzatzen laguntzea da nire lana, baina erabakiak beraienak dira. Ekintzak egin ondoren elkartu eta baloratu egiten dira, zer hobetu daitekeen ikusteko".

Programaren izena bera ere egokitu egin zuten 2002an, *Emakumeak: topaketak eta gizartean parte hartzea helburu* jarri zioten izena, *Emakumeak: topaketak eta herrian parte hartzea helburu* izan ordez. Ez zen aldaketa hutsala izan, gizarte gaiak lantzeko helburua zegoen atzean. Emakumea eta hiria azterketa, emakumearekiko tratu txarrak, edota etorkinen errealitateari buruzko gogoetak egin dituzte horrekin lotuta azken urteotan. Errausketaren inguruko hitzaldia ere

antolatu zuten, eta emakumeek egin duten bidearen eta antolaketa gaitasunaren adierazgarri da gaiaren gaurkotatzea eta baita alde guztien azalpenak entzuteko eginiko ahalegina. Foru Aldundiko ordezkariari eta errauskailuaren kontrako plataformakoei egin zieten gonbita hitzaldirako, bi aldeen iritzia entzun nahirik.

25. urteurrena iritsi da, 1.000 emakume baino gehiago eta 80.000 euroko aurrekontua. Denbora ez da alferrik pasatzen, duela 25 urteko emakumeak eta gaur egungoak ez dira berdinak, ez dituzte behar berak. Programaren asmoei eta helburuei buruz gogoeta egiteko garaia datorkigu, nahien eta beharren arabera tresna egokia izateko, eta dagokion funtzio soziala betetzen jarrai dezan. Emakumeek ekintzak egin jarraitzeko asmo argia dute. Talde bakoitzak bere historia osatzen jarraituko du, 11 talde 11 historia desberdin, eta guztiak interesgarriak. Jakin badakigu lerrootan haien ahotsak apenas tokirik izan duela, ez da kasualitatea. Emakume taldeen historia zabal kontatzekoa da, horregatik, aurrerago egiteko konpromisoa hartzen dugu, azken finean, beraiek baitira historia honetako protagonistak. ■

1997an emakumeek bidaia luzea Parisera egin zuten.



Emakumearen Programari buruzko zenbait datu

1983/84: *Emakumeak: topaketak eta herrian parte hartzea helburu* Programa gorpuzten da, auzoekin lehen kontaktuak egin, lokalak lortu, eta hitzaldiren bat edo beste eginez. Udalak ekintzak antolatzen ditu eta emakumeek parte hartzen dute.

1984/85: Agustinak auzoan eta Kaputxinoetan hasten dira ekintzak egiten. Bi motatako ekintzak izango dira, batzuk entretenimenduzkoak eta besteak harremanak eta norberaren garapena eta ezagutza bultzatzeko balioko dutenak. 76 emakumek hartu zuten parte.

1985/86: Beraungo taldea sartzten da Programan. Guztira 170 emakume.

1986/87: Olibeteko taldea sartu da, baina Niessenen dute egoitza hasieran.

1988/89: Auzo ezberdinetako emakumeek elkarrekin egiten dituzte zenbait ekintza lehen aldiz: zine-foruma, Martxoaren 8ko ospakizuna, erakusketak, edota bidaia luzea hiru egunerako Parisera.

1989/90: Gabierrotako taldea sartuko da Programan. *Emakumeak* aldizkariaren lehen alea ateratu zen 1989ko abenduan.

1990/91: Alabergako taldea Programan parte hartzen hasiko da, aurretik bere gisa antolatzen zituen ekintzak.

1991/92: Iztieta emakumeak Programan sartuko dira, baina lehendik beren kabuz egiten zituzten ekintzak. Dagoeneko zazpi taldek hartzen dute parte programan. Auzoarteko bilerak hasten, dira ekintza bateratu horiek prestatzeko. 250 emakumek hartzen dute parte, guztira.

1992/93: Erdialdeko eta Ondartxoko taldeak sartzten dira, guztira bederatzi talde. Urte horretan Programan parte hartzen duten taldeen errolda egiten da, izenak agertzen dira: Bidexka (Ondartxo), Gurekin (Iztietak), Laguntasuna (Gabierrota), Alai (Agustinak), Goizalde (Kaputxinoak), Erlontzi (Beraun), Oiarso (Erdialdea), Alaberga eta Olibet. Iztieta emakumeak eta Ondartxokoak euren dirulaguntza kudeatzen dute hasieratik. Ekintza bateratuak antolatzeko garaian ere pausoak ematen dira, eta lehen aldiz Emakumearen Eguneko ospakizuna eta bidaia luzea antolatzea emakumeen esku geratuko da.

1993/94: Galtzarabordako taldea sartzten da, Gure-Leku. Talde horrek ere autogestioa egiten du. Emakumearen Eguneko ospakizuna festa itxura hartzen hasi zen. 10 urteren buruan 380 emakumek hartzen dute parte auzoetako ekintzetan. Auzoarteko bilerek gorputza hartzen dute, eta batzordeak ere sortzen dira ekintza bateratuak prestatzeko.

1994/95: Partehartzea 545era igotzen da ikasturte horretan.

1996/97: Pontikako taldea (Loretoki Emakume Taldea) sartzten da Programan. Autogestioa egiten du hasieratik eta urte horretan bertan Erdialdeko taldea ere bere dirulaguntza kudeatzen hasiko da. Programan osatzen duten talde guztiak jada barruan daude, 11 talde, eta 700 emakume partehartzaile dira.

1997/98: Ikasturte horretan Alabergako taldea euren dirulaguntza kudeatzen hasiko da. Ikasturte horretan parte hartzeko arauetan aldaketa nagusi bat egiten da, adin tartea zabaldu egiten da. 25etik 60 urte bitarteko emakumeentzat zena, 25etik 65era zabaltzen da. 740 partehartzaile dira dagoeneko.

1998/99: Olibeteko taldea elkarte gisa eratu eta Itzatu Emakume Taldea bihurtzen da.

2001/02: 766 emakumek hartzen dute parte. Genero indarkeriari buruzko tailerra egiten dute ikasturte horretan. Ikasturte amaieran antzerki emanaldi bat antolatzen du Udalak emakumeentzat lehen aldiz.

2002/03: Programaren izena egokitzen da, *Emakumeak: topaketak eta gizartean parte hartzea helburu* deituko zaio hemendik aurrera. Horrekin batera gai sozialak lantzeko pausoa eman nahi da. Lehendik egiten diren ekintza bateratuz gain San Markosera irteera egiten hasten dira, talde ezberdinetako jendearen arteko elkar ezagutza bultzatzeko.

2003/04: Emakumea eta hiria tailerra egiten dute ikasturte horretan. Gizarte Zerbitzuei buruzko hitzaldiak ere jasotzen dituzte auzo auzo. 890 Emakumek hartzen dute parte Programan.

2004/05: Talde guztiak hasten dira autogestioa egiten. Udalak bost talde kudeatzen jarraitzen zuen, eta talde horiek bi urte zeramatzatzen poliki poliki bidea egiten. Ikasturte horretan behin betiko pausoa ematen dute. 962 emakumek hartzen dute parte Programan.

2005/06: Mila emakume baina gehiago biltzen ditu Programak, 1.040. Inmigratioari buruzko tailerra lantzen dute ikasturte horretan.

006/07: Ikasturte bukaerarako Kaputxinoetako taldea elkarte gisa eratzekeo tramiteak egiten ari da, eta hurrengo ikasturtea jada, Gure Goizalde Emakume Taldea izenarekin hasiko du. 1.026 emakumek parte hartzen dute ekintzetan.

2007/08: San Markosetako irteera kendu eta irteera kulturalak egiten hasten dira.

A modo de resumen

Estamos ante un aniversario, un aniversario que a muchos les pillar  de sorpresa porque es fruto de un trabajo realizado poco a poco y sin aires de grandeza, pero no por ello deja de ser importante. Hace 25 a os el Ayuntamiento de Errenteria puso en marcha el Programa para la Promoci n de la Mujer, programa que se conoce con el nombre de *Mujer: encuentros y participaci n social*. Un Programa que en tantos a os ha conocido muchos cambios, y ha evolucionado, tal y como lo demuestran los datos. Empez  en dos barrios y hoy en d a participan en  l 11 grupos. Un Programa que comenz  con 76 mujeres y ahora reune a m s de 1.000.

Pero lo m s importante no son los datos, sino la trayectoria de las mujeres que hace 25 a os empezaron como simples participantes en unas actividades que organizaba el Ayuntamiento, y hoy en d a, han pasado a ser las que organizan sus propias actividades en los barrios, as  como otras muchas actividades conjuntas con otros barrios con la subvenci n que les da el Ayuntamiento. La idea inicial era ayudar a las amas

de casa a salir, a relacionarse con otras mujeres, y ofrecerles la posibilidad de realizar una serie de actividades l dicas y culturales. El objetivo se ha cumplido, y adem s esas mujeres han demostrado tener una gran capacidad, tanto para atender su casa como para tomar responsabilidades y organizar cosas fuera de ella. Muchos piensan que se trata de lugares en los que se reunen a hacer gimnasia, yoga, baile, manualidades o labores, pero detr s de eso hay mucho m s, est  el compromiso de muchas mujeres.



2007ko irailean Gizarte Zerbitzuetan eginiko bilera, ikasturte hasierako bilera, auzoetako ordezkariekin.

El programa surgi  en 1983, a ra z de una preocupaci n: hab a muchas mujeres que con los hijos ya crecidos dispon an de alg n tiempo libre y se quer a buscar la forma de llenar ese tiempo para evitar situaciones de soledad o depresi n. Tambi n se buscaba dar una oportu-

nidad a aquellas mujeres que por circunstancias de la vida no sal an mucho de casa y no se relacionaban con la gente. Se trataba de abrirles una ventana para que vieran lo que hab a en el mundo. Que vieran lo que hab a, eligieran lo que les interesaba y pudieran hacerlo. Con esa intenci n empez  el Programa en Agustinas y Capuchinos y despu s se incorporaron otros barrios: Beraun, Gabierrota, Alaberga, Iztietta, Ondartxo, Centro, Galtzaraborda y Pontika. Primero se trat  de que las mujeres de cada barrio se conocieran entre s  por medio de las actividades que se organizaban. Despu s se dio el paso a las actividades conjuntas. Aquello implicaba salir del barrio, juntarse con otras mujeres del pueblo, y al principio cost , pero las actividades conjuntas eran bien recibidas. Poco a poco ellas mismas empezaron a participar en la organizaci n de esas actividades: excursiones, viaje largo, revista, campeonato de cartas, 8 de marzo...

Al cabo de unos a os no s lo organizaban todas esas actividades, sino que tambi n se encargaban de organizar las actividades de sus barrios, se autogestionaban. No obstante tambi n ha habido momentos dif ciles, como cuando se quisieron suprimir las actividades l dicas para reforzar el trabajo de grupo y as  dar el paso definitivo a la autogesti n, all  por el 92. La oposici n de las mujeres fue rotunda, y despu s de muchas reuniones llegaron a acuerdos y el paso a la autogesti n lo han ido dando los grupos poco a poco, adem s de mantener las actividades de entretenimiento. En 25 a os han hecho de todo, porcelana rusa, pintura, cuero, cuadros tridimensionales, barro, vainicas, bolillos, punto de cruz, relajaci n, masaje, yoga, chi-kung, thai-chi, gimnasia, aerobico, teatro, din micas de grupo, alfabetizaci n y hasta el baile del vientre. Han pasado 25 a os y es momento de reflexionar. Las mujeres de hace 25 a os y las de ahora no son iguales, ni tienen las mismas necesidades. Por lo tanto, habr  que estudiar la redefinici n del Programa para que siga cumpliendo su labor social. Las mujeres est n por la labor de seguir con sus actividades y con su historia, muy distinta en cada caso, por cierto. Pero esas historias hay que contarlas con m s detalle, as  que lo dejaremos para otra ocasi n, con el compromiso de hacerlo, porque ellas son las protagonistas de esta historia.



88/89 ikasturtean Beraungo taldeko kideak ekintza batean.

98/99 ikasturteko argazkia, Olibeteko taldeko kide batzuk.



Gabierrotako taldekoak yogako klase batean, 98/99 ikasturtean.



Alabergako taldekoak masajeko klasean 93/94 ikasturtean.



98/99 ikasturtea, Iztietaiko taldeko batzuk joste-lanak egiten.





Ondartxoko taldekoak Gabonetan baserritarrez jantzita.

Erdialdeko taldekoak eskulanak egiten 93/94 ikasturtean.



Galtzarabordako emakumeak eho-ziri lanetan.



Pontikako taldekoak gimnasiako klase batean, 00/01 ikasturtean.

